

## PIGMALION EFEKTUA - KONDAIRA

Kondaira mitologiko greko batek dio, Pigmalion erregeak emakume idealaren irudia zizelkatu zuela. Pigmalion hainbeste gustatu zitzaion bere obra, izaki erreala bihurtzea nahi izan zuela. Desioa oso indartsua zen eta ahal zuen guztia egin zuen lortzeko. Laguntza eskatu zion Venus Afroditari, maitasunaren jainkosa zena, eta honek bere ametsa egi bihurtzen parte hartu zuen. Honela, Galatea jaio zen, bere emakume ideala.

Norbaitek gertakari bat aurreratzen duenean, benetan gertatzeko aukera asko daude. Fenomeno horri gizarte-psikologian honela deitzen zaio: “iragarpenen gauzatze automatikoa”; “Pigmalion Efektua edo bere kabuz betetzen den profezia” bezala ere ezagutzen da.

Gertakari hau baieztatzen duten ikerketa asko daude, besteen artean Rosenthalena. Honek, ikastetxe batetako irakasleei ikasle zerrenda bat eman zien eta gaitasun handiagoak zituztela esan zien, baina zoriz aukeratuak ziren denak. Talde honek, intelektualki aurrerapen handiagoa egin zuen besteek baino. Irakasleek emaitza hobeak espero zituzten, hala izan zituzten, beraz, profezia bete zen.

“Pigmalion Efektuak” hiru alderdi eskatzen ditu: gertakari batean sinistea, beteko delako itxaropena izatea eta honen gauzatzea bultzatuko duten mezuekin laguntzea.

Fenomeno hau, pertsonen artean mendekotasun harremana dagoenean ematen da... Zergatik gertatzen den, batak besteari bidaltzeko gai garen energia finarekin erlazionatuta egongo litzateke; mutikoak beregandik espero den horretara egokitzeko martxan jartzen duena ere tartean egongo da, honela, kontutan hartzen dutela sentituko du positibo edo negatiboki.

Hezitzaileok gazteengandik espero duguna betetzeko joera dago. Horregatik, itxaropen konstruktiboak izan behar ditugu hoberena atera dezaten eta negatiboa baztertu, degradazio eta murrizketa pertsonalera eramaten baitute.